eskoriatzako udala

HUHEZIREN ETA DORLETA AUZOAREN ARTEAN, DEBA IBAIAREN GAINEAN DAGOEN ZUBIAREN ZABALPEN MODUAN, OINEZKOENTZEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO PASABIDE BAT EGITEKO KONTRATUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZEN AGIRIA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. BALDINTZA. Kontratuaren helburua.

1.1.- Baldintza agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua da pasabide bat egitea Deba ibaiaren gainean, HUHEZIren eta Dorleta auzoaren artean, egun dagoen zubiaren zabalpen moduan, Juan Manuel Saez Iturrioz arkitektoak 2021eko azaroan idatzitako proiektuaren arabera.

Kontratuaren helburua gauzatzea kontratuan, baldintza agiri honetan eta obra proiektuan agertzen diren balditzetara egokitu beharko da. Agiri horiek guztioriek kontratu izaera dute.

CPV kodea:

1.2.- Sortak: Ez. Kasu honetan ezin da banaketarik egin, kontratua egikaritzeko zailtasuna izango zelako eta eraginkortasunik gabekoa. Kontratuaren helburu diren prestazioak bakoitza bere aldetik egiteak, hau da, horiek egiteko beharrezko koordinazioak, zaildu egiten du, ikuspuntu teknikotik, horiek egitea.

1.3.- Kontratu honekin honako behar hau bete nahi da: Deba ibaiaren gainean egun dagoen eta HUHEZI eta Eskoriatzako Dorleta auzoa lotzen dituen zubian oinezkoentzako irisgarritasuna, segurtasuna eta konexioa hobetzea.

Bestalde, lan horiek kanpoko enpresa espezializatu batekin kontratatu behar dira, Udalak ez baitu lan horiek egiteko langile kualifikaturik.

2. BALDINTZA. Kontratatzailearen profila.

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio hori herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, bestelako publizitate bideak erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek kontratatzailearen profila du, eta ondorengo orrian araututakoari jarraiki sartu beharko da bertara: **www.contratacion.euskadi.eus**

3. BALDINTZA. Egikaritze epea eta kronograma.

Epe osoa: 7 ASTE.

Egikaritze epea zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen den biharamunetik kontatzen hasiko da.

Epea zuinketa egiaztatzeko aktaren biharamunetik hasiko da kontatzen, Administrazioak obra hasteko baimena ematen badu.

Akta hori gehienez ere 10 egun naturaleko epean egingo da kontratua formalizatzen denetik.

Lanak egiteko kontratuan aurreikusitako epea baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak kontratistak, salbu eta obra-zuzendariaren iritziz prozedura hori desegokitzat jotzeko arrazoiak baldin badaude.

Kontratista behartuta dago ezarritako epe osoan zein epe partzialetan betetzera kontratua.

4. BALDINTZA. Kontratuari kalkulatutako balioa eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

4.1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ondorengoa da, lizitatzaileek hobetu ahal izango dutena beraien eskaintzetan, eta ulertzen da bertan sartuta daudela lizitaziotik eratorritako era guztietako gastuak:

46.656,05 € + BEZari dagozkion 9.797,77 €

Prezio hori gehienekoa izango da, lizitatzaileek gutxiago eskainiz hobetu ahal izango dutena. Ez da onartuko lizitazio prezioa gainditzen duen eskaintzarik.

4.2.- SPKLren 101.a artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuari kalkulatutako balioa 46.656,05 euro da.

5. BALDINTZA. Kontratuaren prezioa.

Ondorio guztietarako ulertu beharko da kontratuaren prezioan sartuta daudela kontratatutako zerbitzua normal betetzeko enpresa kontratistak egin beharko dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak, eta baita indarrean dauden xedapenen arabera ezarri ahal diren beste edozein tasa eta udaleko, lurralde historikoko zein estatuko edozein motako zerga eta lizentziak ere.

6. BALDINTZA. Kreditua egotea.

Behar besteko aurrekontu kreditua dago kontratua betetzetik sortutako Udalaren betebeharrei aurre egiteko.

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

7. BALDINTZA.- Prezioak berrikusteko erregimena.

Martxoaren 30eko 2/2015 Legea –Espainiako ekonomiaren desindexazioarena– garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikuluan eta sektore publikoko kontratuen prezioa berraztertzeko baldintzak arautzen dituen SPKLren 103. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honetan ez da aplikagarria aipatutako berrazterketarik.

8. BALDINTZA. Ordainketa erregimena.

Hitzartutako prezioen eta benetan egindako lanen arabera kobratzeko eskubidea du kontratistak, betiere, egindako kontratuaren, horri egindako eta onartutako aldaketen eta Udalak emandako aginduen arabera egin baldin badira lan horiek.

Lana egin dela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu eta horri adostasuna eman ondoren egingo da ordainketa 2017ko SPKLren 198. artikuluan aurreikusitako epean.

Ordainketa egiterakoan lau hilabete baino gehiagoko berandutzea egongo balitz, kontratistak, hala nahi izanez gero, kontratua bete gabe utz dezake. Horrela eginez gero, horren berri eman beharko dio Administrazioari hilabete aurretik, bete gabe uzte horretatik sor daitezkeen eskubideak aitortzeko 2017ko SPKLren ezarrita bezala.

Administrazioa sei hilabete baino gehiago berandutuko balitz ordainketan, kontratistak eskubidea izango du kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz izan ditzakeen kalteen ordaina jasotzeko.

Kontratista abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduko (2014/12/09ko 234. GAO) 2. artikuluan aurreikusitako pertsona juridikoren bat baldin bada, dagokion faktura modu elektronikoan aurkeztu beharko du. Faktura elektronikoa erabiltzera derrigortuta ez dagoenak ere borondatez erabili ahal izango du.

Faktura elektronikoa: Fakturak formatu elektronikoan bidali beharko dira Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorraren (FSPOe) bidez https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua

Unitate organikoen DIR3 kodigoak:

Eskoriatzako Udala

Organo kudeatzailea: L01200343

Unitate izapidegilea: L01200343

Kontabilitate bulegoa: L01200343

9. BALDINTZA. Bermeak.

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Bermea esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZa gabe.

Berme hori jartzeko epea 19.4 baldintzan aipatzen den errekerimenduan aipatutakoa izango da, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako edozein moduan jarri ahal izango da. Bermea jarri dela bide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz egiaztatu ahal izango da. Lizitatzaileari egotzi dakizkion arrazoiengatik ez bada betetzen baldintza hori, Udalak ez dio esleipenik egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

10. BALDINTZA. Esleipen prozedura.

2017ko SPKLren 159.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki sinplifikatu bidez esleituko da, hainbat esleipen irizpideri jarraiki, baldintza orri honetako 15. baldintzan ezarritakoaren arabera.

11. BALDINTZA. Lizitazio elektronikoa.

Lizitazio hau bitartekari elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera. Beraz, Udalak lizitatzaileekin izango duen harremana bitarteko horien bidez ere egingo da.

12. BALDINTZA. Jakinarazpenak eta komunikazioak.

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, eta horretarako ondorengo prozesua jarraituko da:

1. Hartzailearen esku jartzea.

2. Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira sarbidea izatea.

Epeak jakinarazpena egiten denetik hasiko dira kontatzen (jakinarazpenaren objektu den ekintza egun berean argitaratzen baldin bada kontratatzailearen profilean) edo jakinarazpena jasotzen denetik (ekintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzailearen profilean).

Hamar egun natural igarota jakinarazpena eskuragarri jartzen denetik, eta hartzaileak ez badu onartzen edo ukatzen, epea amaitutzat joko da eta jakinarazpen tramitea formalki betetzat.

13. BALDINTZA.- Kontratatzeko gaitasuna

Kontratu honen esleipenean parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, indibidualki edo aldi baterako enpresari-batasuna eratuta, baldin eta kontratatzeko debekuren bat ez badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen baldin badute. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 19.5. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Aurreko paragrafoan esandakoaren kalterik gabe, berariaz ezartzen zaie kontratatzeko debekua ondorengo egoeraren batean dauden pertsonei edota erakundeei:

- Zigor irmoa jaso izana arau-hauste larria egiteagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera, arlo profesionalean, lehia faltsutzearenean, lan-merkatuan integratzearenean, aukera berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonak ez baztertzekoarenean eta atzerritarrenean.

- Zigor irmoa jaso izana arau-hauste oso larriarengatik ingurumen arloan, lege eta arau hauen arabera: Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako dekretua; ontzi eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea; hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea; Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua; Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.

- Zigor irmoa jaso izana arau-hauste oso larria egiteagatik lan edo gizarte arloan, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baita testu horretako 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste larriarengatik ere.

- Bereziki, ezingo dute kontratua egin ezta lizitazioan parte hartu ere lan harreman indibidual edota kolektiboen arloan arau-hauste oso larria egiteagatik zigor irmoa jasotako pertsona fisiko edo juridikoek, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bateginaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, zehazki, sexu-jazarpena gertatutakoan 8. artikuluko 13. idatz-zatia ez betetzeagatik enpresaren zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren arloan.

Gainera, enpresa esleipendunak beraien helburuak edo jarduerak kontratuaren helburuarekin harreman zuzena duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira, eta kontratua behar bezala betetzeko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak izan beharko dituzte.

Enpresariek, gainera, kontratu honen gaia den prestazioa edo jarduera burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

Europako Batasunetik kanpoko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.

14. BALDINTZA. Sailkapena eta kaudimena.

500.000 eurotik beherako balioa kalkulatzen zaion obra kontratua denez, SPKLren 77. artikuluaren arabera, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik eskatzen.

Enpresaria dagokion kontratuaren objektuaren arabera talde edo azpitalde batean sailkatuta egoteak bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kontratatzeko kaudimen teknikoa egiaztatuko du. Kasu horietan, enpresariak bere kaudimena egiaztatu ahal izango du kontratuari dagokion sailkapeneko taldean edo azpitaldean obra kontratista bezala sailkatuta egonda edo lizitaziorako iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eskatutako, eta kontratu honetako baldintza agirian zehaztutako, kaudimen baldintza zehatzak betetzen dituela egiaztatuta.

- Kontratu honi dagokion sailkapena: C taldea, 3. azpitaldea 1 kategoria.

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesionala edo teknikoa: 2017ko SPKLren 86.1 artikuluaren arabera, kontratu baterako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta baita teknikoa edo profesionala ere, Legearen 87. eta 91. artikuluetan aurreikusitako dokumentuen artean kontratazio organoak zehaztatutakoen bidez egiaztatuko da.

- Akreditazio dokumentala:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa: Arrisku profesionalengatik, kontratuak indarraldia duen bitartean, gutxienez, 600.000 euroko estaldura izango duen kalte-ordain asegurua egiaztatzen duen agiria.

Kaudimen teknikoa eta profesionala:

a) Azken bost urteetan antzerako ezaugarrietako hiru obra egin izana, egikaritze onaren ziurtagiriekin obra garrantzitsuenentzat. Egindako obren kostua, data eta tokia jasoko da ziurtagiri horietan, eta zehaztu beharko da lanbidea arautzen duten arauen arabera egin ziren eta normaltasunez amaitu ziren.

b) Obrak egiteko erabiliko diren makinak, materiala eta talde teknikoa zehaztuko duen aitorpena. Horiek egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da kontratazio organoak horrela eskatutakoan.

Kontratu honetan, 500.000 eurotik beherakoa izateagatik, kontratista enpresa sortu berria denean, horrela joz bost urte baino gutxiago duena, ez da aplikatuko zerbitzu kopuru jakin bat eman izanaren baldintza.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera; betiere, egiaztatzen baldin badu kontratua egikaritzeko denboran kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta horiek utzitako erakundeak ez baldin badu kontratatzeko inolako debekurik.

Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako batuketetan parte hartzen duten enpresariek aldi baterako batuketatik kanpoko kaudimen eta baliabidetara jo ahal izango dute.

15. BALDINTZA. Esleipen irizpideak.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak eta horiek emandako haztapena honako hauek izango dira (sorta bakoitzeko baloratuko direnak):

15.1. Formula bidez ebaluatzeko irizpideak: 76 puntu.

ESKAINTZA EKONOMIKOA: 67 puntura arte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak ondorengo formularen arabera baloratuko dira:

P= 67 x gutxieneko eskaintza/N eskaintza

Honako hauek izanik:

P= baloratzen den lizitatzaileak lortutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza= onartutako eskaintza baxuenaren zenbatekoa.

N= baloratzen den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

Unitateko prezio guztiak adieraziko dira, eskaintza ekonomikoarekin batera.

Hasiera batean, ezohikotzat edo neurriz kanpokotzat joko da onartutako oinarrizko proposamen guztien beherapen portzentajeen batez besteko aritmetikoa gutxienez 15 unitatetan gainditzen dituzten proposamen beherapenak, eta hori horrela jotzeko, batetik, aurrez informazioa eskatu beharko zaie ezohikotzat edo neurriz kanpokotzat jotako lizitatzaileei, eta, bestetik, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

BERME EPEA LUZATZEA: 9 puntura arte.

1 urte: 0 puntu

Luzatutako urte oso bakoitzeko: 1 puntu.

15.2.- Balio-judizioaren bitartez ebaluatzeko irizpideak: 24 puntu.

PROPOSAMEN TEKNIKOA: 24 puntura arte.

Irizpidea baloratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: MEMORIA

Obraren egikaritzea aztertuko duen MEMORIA bat, obrari atxiki beharreko giza baliabideekin eta baliabide materialekin -memorian jaso beharko direnak- koherentzia zainduz, egin beharreko jardueren sekuentzia dokumentatuta eta arrazionalki zehaztuko duena.

a) Obrak egiteko kontuan hartu beharreko baldintza nagusiak, mugarri garrantzitsuenak, obrak egitean arazoak sor ditzaketenak edo lanak egiteko orduan funtsezkoak diren beste faktore batzuk zehaztuz.

b) Obra faseetan banatzea, jardueren definizioa, haien arteko harremanak eta sekuentziak, bai eta lan nagusietarako azpikontratatutako enpresen zerrenda ere.

MEMORIAK, gehienez ere, 50 orrialde izan beharko ditu, Arial 11, Calibri 11 edo Times New Roman 11 letran idatzita.

Gehieneko luzapen horrek barne hartzen ditu orri-oineko oharrak, eranskinak, eskemak, argazkiak, grafikoak eta erantsi daitekeen beste edozein dokumentazio mota. Kanpo gelditzen dira azala eta aurkibidea.

Proposamenaren barruan ez da kontuan hartuko lehen adierazitako gehieneko luzera gainditzen duena.

16. BALDINTZA. Kontratazio mahaia.

Kontratazio mahaia kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotziren bat.
- Mahaikideak:
  - Idazkari-kontuhartzailea.
  - Obra publikoetako ingeniari teknikoa.
  - Udal arkitekto teknikoa.
- Mahaiko idazkaria: Idazkari-kontuhartzailea.

17. BALDINTZA. Proposamenak aurkezteko epea eta ezaugarriak, eta baldintza agiriak nola eskuratu.

Lizitazio hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bidez, 20 egun naturaleko epean aipatutako iragarkia agertzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Udal honen kontratatzailearen profilera ondorengo helbidetik sartu ahal izango da: www.eskoriatza.eus. Leku horretan eskuratu ahal izango dira ere baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria.

Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz lizitatzaileek eskatutako informazio gehigarria proposamenak jasotzeko data iraungi aurreko sei egun baino lehenago emango zaie, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 136.2 eta 136.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan ematerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek eskaintzak egiteko beharrezkoa duten informazio guztia jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Lizitazio honetan ez dira onartuko aipatutako bitarteko elektronikoetatik kanpo aurkeztutako eskaintzak. Eskaintzak elektronikoki egiteko beharrezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada ondo ikusi, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta, une horretatik, gehienez ere 24 orduko epea izango du akatsa zuen fitxategiko dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Berriz aurkeztutako dokumentu horrek ezingo du inolako aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako originalarekiko. Kontratazio Organoak ikusten badu dokumentuak aldaketarik izan duela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak administrazio baldintza partikularren agiri honetan jasotakoari egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen diela Kontratazio Mahai eta Organoari EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan jasotako datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kalterik gabe. Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu, eta ezta aldi

baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide izan ere. Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

Informazio publikoa eskuratzeko indarrean dagoen legedian ezarritakoaren eta esleipenaren publizitateari eta izangai eta lizitatzaile guztiei eman beharreko informazioari buruzko SPKLren xedapenen kalterik gabe, lizitatzaileek eskaintzak egiterakoan konfidentzialtzat jo dezakete beraiek emandako informazioaren zati bat, bereziki, sekretu tekniko edo komertzialari eta horien alderdi konfidentzialei dagokiena. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

Zalantzaren bat izanez gero, hona jo daiteke:

HIRIGINTZA ZERBITZUA.

Fernando Eskoriatza plaza z/g –20540 ESKORIATZA

Tel. 943 714407 / Faxa: 943 714042

E-posta: aparejadorea@eskoriatza.eus

Kontratistaren Profila: www.eskoriatza.eus

18. BALDINTZA. Proposamenak aurkezteko era.

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta eta gutun-azal bakoitzerako baldintza honetan zehaztuko den edukiarekin.

"A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu:

a. Gaitutako helbide elektroniko bat.

Gaitutako helbide elektroniko bat izendatu beharko da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente honetan sortutako jakinarazpenak egiteko.

b. Lizitatzailearen erantzukizunpeko deklarazioa.

Deklarazio horretan lizitatzaileak adierazi beharko du Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita kontratua eskuratzeko baldintza agiri honetan jasotako baldintzak ere, bereziki, bertako 13. eta 19-5. baldintzetakoak. Deklarazioa Agiri Europar Bakarraren formularioaren arabera egin beharko da.

Edozein kasutan ere, prozedura ondo bideratuko dela bermatzeko, esleipena egin baino lehen, kontratazio organoak edo mahaiak edozein unetan eska dezake

lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko lukeen dokumentazioa.

c. Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) aurkezten diren operadore ekonomikoen kasuan, elkartekide bakoitzak bere erantzukizunpeko deklarazioa egin beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera, bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d. Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

e. Sortaka zatitu bada, eta bakoitzak kaudimen-eskakizun ezberdinak baditu, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da sorta bakoitzeko, edo kaudimen-eskakizun berberak dituen sorta multzo bakoitzeko.

f. Azpikontratatzeko konpromisoa, baldintza agiriko III. eranskinaren arabera, eskatutako kaudimena azpikontratazio bidez kanpoko bitartekoekin integratu nahi duten enpresek bakarrik.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eta baldintza agiri honek eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

"B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- BALIO-JUDIZIOAREN ARABERAKO BALORAZIO IRIZPIDEAK.

Txosten tekniko deskribatzailea, baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera.

"C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK.

Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu:

a. I. eranskinean jasotako ereduari egokitutako proposamen ekonomikoa. Eskaintza horretan prestazio ekonomikoaren kostuaren banakapena zehaztu beharko da, eranskinean adierazitakoaren arabera.

b. II. eranskinean agertzen den formula bidez puntuatzeko proposamen ereduari jarraituko dion proposamena, baldintza-agiri honetako 15. baldintzan jasotako automatikoki puntuatzeko gainerako irizpideei buruzkoa.

19. BALDINTZA. Aurkeztutako dokumentazioa irekitzea, tratatzea, enpresak aukeratzea eta eskaintzak baloratzea.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, ondorengo jarduerak egingo dira:

1.- "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA.

Mahaiak "A" gutun-azal elektronikoa ireki eta bertan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du. SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, aurkeztutako dokumentuetan zuzentzeko moduko akatsak ikusiko balitu Mahaiak, horiek egindako lizitatzaileei jakinaraziko dizkie, eta hiru egun naturaleko epea eman horiek zuzentzeko.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazitako zuzenketak Udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2.- "B" GUTUN-AZALA IREKITZEA.

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizioaren menpeko irizpideak dituena, kontratatzailearen profilean iragarritako lekuan, egunean eta orduan irekiko da. Iragarpena, gutxienez, ekitaldia baino 48 ordu lehenago argitaratuko da. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.- "C" GUTUN-AZALA IREKITZEA.

"B" gutun-azaletako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, "C" gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldia egingo du Kontratazio Mahaiak Udalaren kontratatzailearen profilean ezarritako lekuan, egunean eta orduan.

Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz, gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko.

Ekitaldi horretan jakinaraziko da eskaintza bakoitzean balio-judizioaren menpeko irizpideei emandako balorazioa.

4.- ESKAINTZAK SAILKATZEA.

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposizioak onenetik txarrenera sailkatuko ditu Kontratazio Mahaiak eta, dagozkion jarduerak egin ondoren, kontratua esleitzeko proposamena egingo dio kontratazio organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta kontratua formalizatu arte ez du inolako eskubiderik izango Administrazioaren aurrean.

SPKLren 149. artikuluan aurreikusten denez, eskaintza nabarmenki baxuegia duen proposamenen bat edo gehiago antzemandakoan entzunaldia eskainiko zaio lizitatzaileari eskaintza nabarmenki baxuegitzat jo aurretik (edo lizitatzaileei, hala dagokienean), eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da. Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena, betiere, lizitazioko helburua Administrazioak nahi bezala egiteko gaitasuna duela jotzen bada.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezingo dela burutu prezio nabarmenki baxuegiak sartu direlako, sailkapenetik baztertuko du eta sailkapen hurrenkeraren arabera proposamen ekonomiko onena egin duenaren aldeko esleipena erabakiko du.

Egindako guztia espedientean jasoko da, derrigorrez egin beharreko aktetan.

5.- LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA.

Aurrez adierazitako jarduerak egin ondoren, kontratazio zerbitzuek errekerimendua egingo diote sailkapenean lehenengo gelditu denari, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean honako jarduerak egin edo honako dokumentuak aurkeztu ditzan:

a. Lizitatzailearen edo bere ordezkariaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea, Udalak askietsiko duena.

b. Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa eskritura edo aldaketa, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko kodea, inskribatzean derrigorrezkoa denean aplikatu dakiokeen merkataritza legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

   Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie edo erantzukizunpeko deklarazioa edo ziurtagiri bat aurkeztu aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

   Atzerriko gainontzeko enpresariek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, delako estatu horretan Espainiak daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo enpresak helbidea duen kontsuletxeko bulegoak egindako txostenaren bidez.

c. Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Egiaztagiria aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan,

Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez duela egiaztatzeko erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko du.

d. Kaudimena honela egiaztatzea:

   – Lizitatzailearen ekonomia eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren ziurtapenak, 14. baldintzan ezarritako bideetatik.

e. Hainbat enpresarik lizitaziora jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Bestalde, aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko du proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

f. Kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako edozein ordenako epaitegi eta auzitegien menpekotasuna onartzeko aitorpena aurkeztu beharko dute atzerriko enpresek, beraien nazioko epaitegiei uko egiten dietela garbi adieraziz.

g. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea edo kontratazio organoari baimena ematea berak zuzenean lortzeko egiaztapen horiek.

h. Behin betiko bermea jarri izanaren ziurtagiria.

Aurreko a), b) eta d) letretan adierazitako baldintzak EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko ziurtagiria, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, edo, Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri bat, aurkeztuta ziurtatu ahal izango dira, SPKLaren 96. eta 97. artikuluek xedatutakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki emandakoak izan daitezke.

Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

Errekerimendu hori eginda aurkeztutako dokumentuetan zuzentzeko moduko akatsak antzemanez gero, hiru egun naturaleko epea emango zaio lizitatzaileari horiek zuzentzeko. Horren berri zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari eta Udalaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

20. BALDINTZA. Esleipena eta formalizazioa.

Kontratua eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileari esleitzea erabakiko du Kontratazio Organoak. Esleipena bost egun balioduneko epean egingo da lehen sailkatuari errekeritutako

dokumentazioa Kontratazio Organoak jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, SPKLren 150.3 artikuluak agindutakoa betez.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Agiri hori zehaztasunez egokituko da lizitazioko baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

Esleipen jakinarazpenean adierazitako epean, ezingo dena izan 15 egun baliodun baino handiagoa, esleipenduna Administrazio honetara etorri beharko da kontratua dokumentu administratiboan formalizatzera.

21. BALDINTZA. Kontratua ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egitea.

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat antzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo esleipen prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

22. BALDINTZA. Kontratua egikaritzeko araubide orokorra.

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, betiere, baldintza agiri honen baldintzen pean -eta hala badagokio, espedienteari batutako zehaztasun teknikoen pean- eta Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean, zeinak ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabiliko dituen.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Administrazioak uste badu kolokan dagoela kontratuak behar bezala aurrera egitea, kontratua behar bezala burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du.

23. BALDINTZA. Kontratuaren arduraduna, obraren zuzendaritza eta obraren ordezkaria.

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du, 2017ko SPKLren 62. artikuluak ezartzen duen moduan.

Kontratazio Organoak izendatzen duen obra zuzendaria izango da kontrataturiko lana behar bezala egiteko zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztatze eta zaintza lanak egingo dituena. Obra zuzendariak Kontratazio Organoak izendatzen duen pertsonen laguntza jaso ahal izango du.

Kontratistaren obra-ordezkaria teknikari tituluduna izango da, eta egiaztaturiko esperientzia izango du kontratuaren gaia den lanaren antzeko lanetan.

Obra-zuzendari fakultatiboari dagokio obren egikaritzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua zuzen beteko dela bermatzeko erabakiak hartzea eta beharrezko aginduak ematea.

Berehalako arrisku kasuetan, beharrezko lanak premiaz egitea agindu dezake zuzendaritza fakultatiboak. Kontratistak lan horiek egin beharko ditu, ondoren obra zuzendaritzak dagokion administrazio tramiteak hastearen kalterik gabe.

2017ko SPKLren 62. artikuluaren arabera, kontratu hau jarraitzeko eta egikaritze arrunterako unitatea ondorengoa da:

OBRAK ETA ZERBITZUAK ARLOA.

Fernando Eskoriatza plaza z/g. 20540 Eskoriatza.

E-mail: obraetazerbitzuak@eskoriatza.eus

24. BALDINTZA. Zuinketa egiaztatzea eta lan programa.

Kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamar egun naturaleko epean egin beharko da zuinketa eta horri buruzko akta.

Kontratista esleipendunak lan programa bat aurkeztu beharko du, justifikatutako kasuetan izan ezik. Era berean, lan-programaren eranskin gisa, lizitatzaileak, lanak egiteko beharrezkotzat uste duen lantaldea edo plantillla kategoriaka zehaztu behar du; eta hor, zein den bere lantalde propioa ere azaldu behar du.

Aipatu den lan-programa hori marra-diagrama bidez egin daiteke, eta obra hori nahi den beste zati edo kapitulutan bana daiteke, eta kapitulu edo zati horietan ere komenigarritzat uste diren unitate edo unitate-zati guztiak egin daitezke hobeto planifikatu ahal izateko. Edozein modutan ere, ondoko datuok jarri beharko dira:

a) Obra osatzen duten unitateak obra-zatietan edo obra-motetan antolatu behar dira, neurriak adierazita.

b) Behar diren baliabideak eta bitartekoak zehaztu behar dira: pertsonala, instalazioak, ekipoa eta materialak. Batez besteko errendimendua adierazi behar da.

c) Obrak eta prestalan guztiak, ekipoa eta instalazioak, eta obra-zati bakoitza edo obra-mota bakoitza egiteko epeen egutegia finkatu behar da, gauza bakoitzerako zenbat egun behar diren esanda.

d) Programatutako obraren hileko balorazioa eta balorazio metatua, obrak eta prestalan guztiak, ekipoa eta instalazioak eta obra-zatiak edo obra bakoitzak duen prezio unitarioan.

e) Jarduera edo lan guztien grafikoak.

Esleipendunak aurkezten duen plangintza kontratuko dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Kontratatze organoak lan-plangintzari buruzko ebazpena emango du hura aurkeztu ondorengo bost egunen barruan, edo, hala badagokio, aldaketak sarraraziko ditu edo baldintza batzuk betearaziko ditu, betiere kontratuaren klausulen aurka ez badoaz.

25. BALDINTZA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak.

Kontratua bertan jasotako baldintzen eta horiek interpretatzeko Udalak kontratistari emandako jarraibideen arabera egikarituko da.

Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, iragarkiak, eskritura publikoa eginez gero kontratua formalizatzearenak eta hornidura gai diren ondasunak egikaritu eta entregatzeko beharrezko lizentzia eta baimenenak ere.

Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ere berak ordaindu beharko ditu: orokorrak, finantzarioak, asegurukoak, garraio eta bidaienak, materialak, instalazioak, bere kargurako langileen soldatak, egiaztatze eta entsegukoak, tasa eta zerga mota guztiak, BEZa, jarduera egiteagatik izan dezakeen zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua betetzerakoan sor daitekeen beste edozein.

Lizitatzaileek egindako eskaintzetan zein esleipen proposamenetan kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten edozein motako zergak barne daudela ulertuko da eragin guztietarako.

Hala ere, eta edozein modutan, eskaintza ekonomikoan partida berezi moduan azaldu beharko da Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZari) dagokion zenbatekoa.

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko gizarte, lan, etika, ingurumen zein bestelako egikaritze-baldintza berezi hauek eskatuko dira:

Mota berezia	Ingurumen motakoa
Deskripzioa	CE marka duen makineria erabiltzea, egokia lanerako eta ahalik eta isurketa gutxien igorriko duena ingurunera.

Baldintza horrek funtsezko izaera du kontratuaren betebeharretarako, eta beraz, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoaren babesean, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoia izan daiteke lege horretako 211.1.f) artikuluan aipatutako ondorioetarako.

28. BALDINTZA. Kontratistaren izaera espezifikoko beste obligazio batzuk eta galda daitezkeen gastuak.

Kontratistak, derrigorrez eta eskura, obran bertan eduki behar du "Agindu Liburua". Liburu hori obra-zuzendari teknikoaren esku egongo da, eta bertan jaso beharko ditu lanak egin bitartean izandako bisitak, sortutako ezbeharrak edo gorabeherak eta emandako aginduak. Kontratista derrigortuta dago, bai bera edo bere ordezkaria, agindu edo jarraibide horien hartu-agiria sinatzera.

Obraren onarpena egiten denean, "Agindu Liburua" behar bezala beteta aurkeztea eskatuko da. Onarpena egin ondoren, liburu hori Udalaren esku geratuko da.

Baldintza teknikoen agirian aurreikusitako saiakuntza eta azterketen kalterik gabe –baldintzon edukiak dioena bete behar da–, obra-zuzendariak obra-unitateen eta materialen probak edo azterketak egiteko agindua eman dezake, eta kasu bakoitzean bidezkoak diren txosten zehatzak edo espezifikoak egitea eskatu ere bai. Hori dena kontratistaren kargu geratuko da.

Kontratistaren kontu eta haren kargu geratuko dira gestioak egitea eta gastu guztiak, tasak, arielak eta abarrak ordaintzea. Hari dagokio ere eskumena duten erakundeetan aurkeztu behar diren proiektuak idaztea eta onartzea alta jasotzeko eta funtzionamendu-baimena eskuratzeko, sareetara eta zerbitzuetara lotzeko, behin betiko hartuneak eta aldi baterakoak egiteko eta, orohar, instalazioen funtzionamendua egokia eta legezkoa izateko egin behar diren gauza guztiak egiteko.

Kontratista derrigortuta dago bere kargura seinaleak jartzera obrarako sarbidea eta lanak egiterakoan hartuko den aldeko zirkulazioa zein obrak egiten direnean gune horretan eta inguruetan edo mugetan egon daitezkeen arrisku-puntuak adierazteko.

Era berean, lanak egiten hasten direnetik, esleipendunak, lanak identifikatzen dituzten seinaleetan kartelak ipini beharko ditu, Udalak finkatutako ezaugarriekin lanak identifikatuko dituztenak.

Kontratista derrigortuta dago ez bakarrik lanak egitera, baita lanak zaintzera ere Udalak lanak onartu arte. Era berean, harik eta lanak onartu arte, esleipenduna izango da lurzoruak eta han dauden ondasunak zainduko dituena.

Kontratistak eraikuntzaren oinarrizko arauak eta derrigorrez bete beharreko gainerako erregelamendu teknikoak gorde beharko ditu.

Halaber, kontratista derrigortuta dago isilpean gordetzera esleitu zaion kontratuaren edukia.

Laneko segurtasun eta osasun plana.

Lanen kontratista-esleipendunak laneko Segurtasun eta Osasun plan bat egin beharko du, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta horren bi ale aurkeztu beharko ditu udaletxean 10 egun naturaleko epean kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita. Segurtasun eta osasun planak ezingo du inolako aldaketarik sartu kontratuko baldintzetan, eta plan horretan, besteak beste, aurreikusitako azpikontratazioak adierazi beharko dira, horrelakorik balego.

Plan hori, koordinatzailearen dagokion txostenarekin batera, edo horrelakorik ez balego, zuzendaritza fakultatiboenarekin, lanak hasi aurretik emango zaio Udaleko organo eskudunari onar dezan.

Aurreko paragrafoan ezarritako epeak beteko ez balitu kontratistak, eta horregatik ezinezkoa balitz lanak hastea, kontratistak ezingo du inolako luzapenik eskatu arrazoi horrengatik.

Laneko Arriskuen Prebentzioa.

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua betez, kontratistak, kontratua formalizatzen denetik 10 egun naturaleko epean, prebentzioarekin lotutako ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

1. Prebentzioaren antolaketa-mota.
2. Prebentzio arloko solaskidea.
3. Kontratuaren helburu diren lanetan garatuko diren jardueren arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko prebentzio neurriak.

4. Lan egin behar duten langileen zerrenda, izena, bi abizen eta NAN edo AIZ zenbakiarekin.
5. Langileen aitorpena, ondorengoei buruzko informazioa jaso izanarena:
    a. Lantokiaren arriskuak.
    b. Lantokiaren larrialdietarako plana.
    c. Kontratatutako enpresentzako segurtasun eta osasun arau orokorrak.
6. Beraien jardueraren arrisku zehatzei buruz langileei emandako prestakuntza eta informazioaren egiaztapena.
7. Osasunaren zaintza derrigorrezkoa duten lanpostuen zerrenda eta lanpostu horietako langileen gaitasun ziurtagiria.
8. Langileei babes ekipo indibidualak eman izanaren justifikantea.
9. Erabiliko diren ekipoen edo makinen zerrenda eta horiekiko adostasun adierazpena.
10. Makinak edo ekipoak erabiltzeko langileei emandako baimena.
11. Prebentzio errekurtsoaren izena (lan honetan prebentzioko ardura duen pertsona), beharrezkoa balitz.
12. Gizarte Segurantzari aurreko hilabetean ordaindu izanaren TC1 eta TC2 boletinak.
13. Kontratazio berrietan, Gizarte Segurantzako alta partearen (TA-2) fotokopia.
14. Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
15. Betebehar fiskalak egunean dituela jasotzen duen Ogasuneko ziurtagiria.
16. Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta azken ordainagiriaren kopia.

<u>Erantzukizun asegurua hirugarrenei eragindako kalteengatik.</u>

Kontratistak aseguru kontratua izan beharko du kontratua egikaritzeko denbora osorako (luzapenak barne) eta dagokion berme eperako (luzapenak barne), eta aseguru horrek hirugarreni egindako kalteak eta obrarenak estali beharko ditu.

Kalte-ordainen gutxieneko estaldura 60.000 eurokoa izango da.

Edozein kasutan ere, frankiziari dagokion zenbatekoaren kalte-galerak esleipendunak berak jasango ditu kalte-galerok aseguru-poliza guztietan ezar daitezkeen mugak gainditzen dituzten guztietan zein aseguru-poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasunetan eta arriskuetan.

Apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikuluaren arabera, enpresak behartuta daude beraien langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adieraztera beraien proposamenean.

<u>Kontratistaren betebeharrak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan.</u>

1.- Enpresa kontratistak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak bete beharko ditu.

Apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikuluaren arabera, enpresak behartuta daude beraien langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adieraztera beraien proposamenean.

Berea bakarrik izango da lan istripuei buruzko guztiaren erantzukizuna. Zehazki, bere kargura eta prestasun osoz egikaritu beharko du segurtasun eta osasun plana, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera idatzia eta onartua. Enpresa kontratistak hori ez betetzeak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratatzaileari.

Enpresa kontratistak, kontratua egikaritu bitartean, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko dio langile bakoitzari, dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata inolaz ere ezingo da izan hitzarmenean jasotakoarena baino txikiagoa.

Enpresa kontratistak sexu jazarpena eta jazarpen sexista ekiditeko lan baldintzak sustatu beharko ditu eta horrelako jazarpenak prebenitzeko eta horrelakorik jasan dituztenen salaketei edo erreklamazioei bide emateko prozedura espezifikoak ezarri.

<u>Eraikuntza eta eraispen hondakinei buruzko betebeharrak.</u>

1.- Araudi aplikagarrian aurreikusitako betebeharrez gain, lana egikaritu behar duen pertsona fisikoa edo juridikoa behartuta dago, lanak hasi aurretik, obraren jabeari plan bat aurkeztera, obran sortuko diren eraikuntza eta eraispen hondakinei buruz dagozkion betebeharrak nola beteko dituen jasoko duena. Horretarako, proiektuan jasotako baldintza teknikoen agirian ezarritakoa hartu beharko du kontuan.

2.- Plana, behin zuzendaritza fakultatiboak onetsita eta jabeak onartuta, obrako kontratu-dokumentu bihurtuko da.

<u>Hizkuntza betebeharrak kontratua egikaritzerakoan.</u>

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea. Araubide hori Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezartzen da eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatuta dago, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta

administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuan eta Eskoriatzako Udalaren Euskararen Erabilera Planean.

Horrenbestez, obra dela-eta jarri beharreko errotulu, ohar, seinale edo gainerako komunikazioak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira, mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz, edo, onartzen den kasuetan, ele bietan.

Klausula honetan jasotako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua amaitzea.

EKIPOAK ETA PERTSONAL BALIABIDEAK

1.- Kontratistak ekipo eta pertsonal baliabide egokiekin egin beharko ditu lanak, lanen martxatik sortutako beharrei uneoro erantzunez.

2.- Zehazki, bere kargura aurreikusi beharko du proiekturako eta obrarako beharrezko laguntza teknikoa, lan eta espezialitate guztien behar propioei aurre egiteko behar besteko gaitasuna izan beharko duena.

